

ISPILU(h)ARI

Handiak

URRIAK 18

**Poesia eta
elektronika**

**LEIRE VARGAS
eta
JAIME NIETO**

Poesiaren eta musika elektronikoaren arteko elkarriketa.

Sintetizagailu, gitarra eta teklatuak giroa eraiki eta poetaren ahotsak hitzak jarriko dizkio inguruko egoera soziopolitikoari, gazte-belaunaldi baten kezkei eta haiek in lotutako emozio-sortari.



AZAROAK 15

**Dantza
performancea**

**"SOKATIK
KORAPILORA"
Miren Hazas**

Prozesu esperimental sakon baten emaitza da, EmeHatxe eibartarrarena.

Arte plastikoetan murgilduta eta dantzaria izaki, bi diziplinak nahastuz sortutako pieza da ikusiko duguna, berak auto-omenaldi edo autorretratu modura definitzen duena.

Ikuskizunaren ondoren (30' inguru iraungo du), egilearekin hitz egiteko aukera izango dugu, bere lanaren nondik norakoez.




ABENDUAK 20

**Musika,
performanceak,
umorea**

**MURSEGO
(Maite
Arroitajauregi)**

Markos Gimeno sortutako palindromoen berrirakurketa librea. Musikak, performanceak, umoreak eta "hizperimentuek" bat egiten dute Maite Arroitajauregi, Mursegoren hegaldi berri honetan.

Markos Gimeno Ermuan jaio zen Franco hil zen urtean eta tamalez, 2018an joan zitzaigun. Artista moldakor eta polifazetikoak izan zen. Hainbat diziplinaren sortzaile aparta: pintura, musika, antzerkia eta literatura. Palindromoen formulazioan nabarmendu zen bereziki. Palindromoak: ezkerretik eskuinera eta alderantzizko zentzuan berdin irakurtzen diren hitzak edo esaldiak.



**18:00
Ispiluen gela**

**12 urtetik gorakoentzako
kultur ekitaldiak.
Hilero, 3. larunbatean.**

**Ispilua ari
hariak harilkatzen
hari eta guri**



ISPILU(h)ARI

Txikiak

URRIAK 19

Antzerkia

"AMA, AMAMA, MAMUAK"

Naita konpainia

Martini mamuak azaldu zaizkio ametsetan eta ez daukate maite dituen dinosauroen inolako antzik. Amona hil denetik arraro dabil eta amak ez du bera ongi ulertzen. Gau Beltza iritsi da eta horrekin batera barruko mamuak handitu zaizkio. Non dago amona hildakoen jaia den gau honetan? Laguntasunaz, familiaz, eta bizitzaren zikloaz hitz egiten duen istorioa da. Gogoratzen ditugunak gurekin izango ditugulako. Gogoan geratzen dena hiltzen da azkena.



AZAROAK 16

Poesia umorez josita

"MAITEDER"

Kiribil konpainia

MAITEDER ikuskizunak, ikusleei (gazte zein heldu) bidaia bat biziartzatzen die. Beraien egongelan dauden bi pertsonaiek, alaiak eta irudimen handikoak, publikoa eramaten dute, munduz gaindiko bidaia batean, hizkuntzen bidean; baita barneko bidaia intimo batean ere. Amaieran, proposamen irekia plazaratzen da: ikusle bakoitzak bere MAITEDER imajinatu eta sortzen du.



ABENDUAK 21

Bertso antzerkia

"TEILATUPEAN"

Etxearen bueltan hainbat gai jorratzen ditu publiko familiarrari zuzenduriko antzezlan honek: adiskidetasuna, zaintza, etxebizitzaren arazoa, migrazioa, marjinazioa, duintasuna, bizitza ereduaren aniztasuna... Bertsoak, koplak eta beste hainbat baliabide tartekatzen dira obra dinamiko eta jostari honetan, hala nola, txotxongiloak, argitzalen jokoak, objetuen manipulazioa, koreografiak...



17:30
Ispiluen gela

12 urtetik beherakoentzako
kultur ekitaldiak.
Hilero, 3. igandean.

Ispilua ari
hariak harilkatzen
hari eta guri

